

Euskal esportazioek susperraldia sendotu dute


Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, EA-Eko guztizko esportazioak 2.186 milioi eurotik gora-koak izan ziren uztaillean, kopuru handia pandemi-an saldutako 1.857 milioiekin alderatzen denean. Zenbateko hori Covid aurreko salmenta mailetara hurbiltzen da, eta hirugarren uztailik onena da 2008az geroztik. Halaber, hiruhileko arteko hazkun-de jarraituaren hirugarren hilabetea izan zen, eta horrek esportazioen susperraldia sendotu zuen.

Barne jardueraren hobekuntza inportazioen bilaka-eran nabarmendu zen, pandemia hasi aurreko erosceta mailetara ere hurbildu baitziren. Zehazki-ago adierazita, inportazioek, guztira, %25,1eko haz-kundea izan zuten 2021eko uztaillean, 1.675 milioi eurotik gorako zenbatekoarekin. Horren guztiaren ondorioz, guztizkoaren saldoak 511 milioi euroko superabita izan zuen.

ESPORTAZIOAK GUZTIRA


Urte bakoitzeko uztaila
Milioi euro

URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA
%17,7




IMPORTAZIOAK GUZTIRA

Urte bakoitzeko uztaila
Milioi euro



MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Urte bakoitzeko uztaila
Milioi euro



ESPORTAZIOAK ARANTZEL TALDEEN ARABERA

Urte bakoitzeko uztaila. Milioi euro.


	2019	2020	2021	% 2021	Aldakunt.
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.242,3	1.857,2	2.186,2	100,0	17,7
Nekazaritzako produktak	114,7	86,7	127,0	5,8	46,5
Produktu mineralak eta energetikoak	162,1	78,2	119,4	5,5	52,7
Produktu kimikoak	65,6	50,6	77,1	3,5	52,3
Plastikoa eta kautxua	130,9	119,5	144,5	6,6	20,9
Papera eta manufakturak	53,7	47,8	58,7	2,7	22,8
Metal arruntak eta horien manufakt.	424,8	362,7	529,5	24,2	46,0
Makinak eta aparatuak	448,5	407,5	443,0	20,3	8,7
Garraio materiala	720,6	581,3	547,4	25,0	-5,8
Beste manufaktura batzuk	121,4	122,9	139,6	6,4	13,6

Azterketa esportazioetan fokatuz, hauek %17,7 hazi ziren produktu siderurgikoek gora (%46,0) egin zutelako eta makina eta aparatuak gehiago (%8,7) saldu zirelako, garraiorako materialaren beherakada konpentsatu baitzuten (-%5,8). Mercedeseko instalazioko geldialdiek, erdieroaleen hornidura faltaren ondorioz, partida hori oztopatu zuten neurri handi batean.

EAEko salmenten helmugako herrialdeei dagokienez, beste behin ere esportazioen %62 27 kidez osatutako Europar Batasunean kontzentratu ziren. Alemania, Frantzia eta Belgika izan ziren hartzaile nagusiak.


ESPORTAZIOAK ALEMANIARA

Urte bakoitzeko uztaila
Milioi euro




ESPORTAZIOAK FRANTZIARA

Urte bakoitzeko uztaila
Milioi euro



ESPORTAZIOAK BELGIKARA

Urte bakoitzeko uztaila
Milioi euro



Iturria: Eustat eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.